



ERRETERIA
UDALA
Kultura / Cultura

Errenteriako Udala

Zk./ Nº 2026/1853

Data / Fecha 2026/06/19

DEKRETUA / DECRETO

Espediente zk./Nº expediente: 2026KPOL0010

Gaia/Asunto: Kaleko kultur jardueren eta txoznen ordutegiaren dekretua / Decreto horarios actividades culturales en la calle y txoznas

Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

DEKRETUA

DECRETO

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

Herriko jaiak, auzoetako jaiak eta bestelako jai edo kultura ekitaldiak direla eta, eskaerak aurkeztu ohi dira Errenteriako Udalean hala kanpoko espazio publikoetan gauzez (23:00etatik aurrera) jarduerak eta ekitaldiak antolatzeko, nola halako ospakizunekin zerikusia duten aldi baterako elementuak jartzeko ere, txosnak barne.

Con motivo de la celebración de fiestas patronales, fiestas de barrio y otros eventos de carácter festivo o cultural, se presentan habitualmente ante el Ayuntamiento de Errenteria solicitudes para la organización de actividades y eventos nocturnos (a partir de las 23:00 horas) en espacios públicos exteriores, así como para la instalación de elementos temporales vinculados a dichas celebraciones, incluidas las denominadas "txoznas".

Halako jarduerak egitean, bateragarri egin behar dira, batetik, jai edo kultura ekitaldiek duten interes publikoa eta soziala, eta bestetik, auzotarren atsedeenaren babesa, herritarren bizikidetzeta, pertsona eta ondasunen segurtasuna eta espazio publikoaren erabilera egokia.

El desarrollo de estas actividades requiere compatibilizar el interés público y social derivado de la celebración de eventos festivos y culturales con la protección del descanso vecinal, la convivencia ciudadana, la seguridad de las personas y bienes, así como el correcto uso del espacio público.

Halaber, irizpide homogeenak ezarri behar dira era horretako jarduerak eta aldi baterako instalazioak baimentzeko eskatu beharreko baldintza teknikoei, ordutegiei, kokalekuei eta betekizunei dagokienez.

Asimismo, resulta necesario establecer criterios homogéneos en relación con las condiciones técnicas, horarios, emplazamientos y requisitos de este tipo de actividades e instalaciones temporales.

Ikusirik Kulturako sailak egin duen proposamena.

Vista la propuesta efectuada por el departamento de Cultura.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por el asesor jurídico municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Honen bidez,

Por la presente,



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Erreterian gauetz (23:00etatik aurrera) egiten diren kultur ekitaldietarako ondorengo baldintzak onartzea:

LEHENENGOA.- OBJEKTUA ETA APLIKAZIO EREMUA

Dekretu honen xedea da Erreteriarako udalerrian kanpoko espazio publikoetan kultur ekitaldiak gauetz (23:00etatik aurrera) egiteko eta «txosna» deritzen aldi baterako instalazioak jartzeko udal baimena ematean aplikatu beharreko irizpide orokorrak eta baldintza teknikoak ezartzea. Beraz, ebazpen hau ez zaie aplikatuko 23:00ak baino lehen amaituko diren kultur ekintzei, eta hauek dagokien eskaera bideratu beharko dute.

Dekretu honetan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkie udal espazio publikoetan egiten diren eta aurretiazko udal baimena behar duten aldi baterako jarduera, instalazio edo ekitaldi gutzietan.

BIGARRENA.- KANPOKO ESPAZIOETAKO EKITALDI KULTURALAK

I- Kanpoko espazioetako kultur ekitalditzat hartzen da kanpoko espazioetan espazio publiko batean egiten den edozein kultur jarduera, kulturala edo bestelakoa,

II.- Baimen hori beharko dute kanpoko espazio publikoetan egin nahi diren kanpoko espazioetako kultur ekitaldiek, izan eragileek antolatuak, izan titulartasun publikoko edo pribatuko enpresek antolatuak.

Baimena baldintzapean emango da, ezinbestean bete beharko baitira ekitaldia baimentzeko dekretuan eta egiten den eskaerari buruz ematen diren txosten teknikoetan ezartzen diren baldintzak.

RESUELVO

Primero.- Aprobar las siguientes condiciones para los eventos culturales que se celebren en Erreteria en horario nocturno (a partir de las 23:00 horas):

PRIMERO.- OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

El presente Decreto tiene por objeto establecer los criterios generales y las condiciones técnicas aplicables a la autorización municipal de eventos culturales en horario nocturno en espacios públicos exteriores y de instalaciones temporales denominadas "txoznas" en el municipio de Erreteria. Por tanto, esta resolución no será de aplicación a las actividades culturales que finalicen antes de las 23:00 horas, las cuales deberán tramitar la solicitud que les corresponda.

Las disposiciones contenidas en este Decreto serán de aplicación a todas aquellas actividades, instalaciones o eventos de carácter temporal que se desarrollen en espacios públicos municipales y que requieran autorización municipal previa.

SEGUNDO.- EVENTOS CULTURALES EN ESPACIOS EXTERIORES

I- Se entiende por evento cultural en espacios exteriores, cualquier actividad cultural ~~o de otro tipo~~ que se realice en un espacio público en espacios exteriores .

II- Necesitarán de esta autorización aquellos eventos culturales en espacios exteriores que se quieran realizar en todos los espacios públicos exteriores, ya sean organizados por agentes o empresas de titularidad pública o privada.

La autorización quedará condicionada al cumplimiento de las condiciones que se establezcan en el Decreto de autorización del evento y en los informes técnicos que se emitan en relación a la solicitud que se realice.



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

Kanpoko espazioetan egiten diren gaueko kultur ekitaldiek udalerriko bizilagunei eragozpenik ez eragiteko, udal departamentuek elkarrekin koordinaturik jardungo dute, halako ekitaldiak ez daitezen beti leku berberetan antolatu.

Beti egingo da ahalegina biak uztartzeko: programatutako ekitaldia egitea eta jarduerak eragindako herritarrek atsedean hartzeko duten eskubidea. Horretarako, udalak erakunde interesdunari eskatu ahal izango dio alda dezala kokalekua, eguna edo ordua.

III- Kanpoko espazioetan klultur ekitaldiak egitearekin batera, karpak, eszenatokiak, musika ekipoak, barrakak eta beste elementu edo gailu batzuk instala daitezke, edozein jardueratan oro har, baina bereziki herriko eta auzoetako jaietan, betiere baldintza teknikoak eta dagokion araudia beteta

IV- Baimen eskaerak hauek adieraziko ditu, besteak beste:

Eskatzailearen datuak: izen-abizenak, IFZa, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Jardueraren datuak: eguna, lekua, ordutegia, beharrianak (materiala, ur hartunea, argindar puntuak, udaltzainen laguntza...).

Jardueraren egitaraua.

Karpen, eszenatokien eta egiturazko beste edozein elementu edo gailuren dokumentazio grafikoa eta teknikoa.

Erantzukizun zibileko aseguru, prima ordaindu izanaren egiaztagiriarekin batera.

V- Eskabideak jarduera egin nahi den eguna baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztuko dira. Herriko jaien kasuan, ordea, eskabideak Errenteriako Udalak

Con el fin de evitar las posibles molestias que estos eventos culturales en horario nocturno en espacios exteriores puedan ocasionar a los vecinos del municipio, los diferentes departamentos del ayuntamiento se coordinarán de manera conjunta para que estos eventos no se organicen siempre en los mismos emplazamientos.

Se intentará siempre conjugar la realización del evento programado con el derecho al descanso de la ciudadanía afectada por dicha actividad. Para ello, el ayuntamiento podrá solicitar un cambio de emplazamiento, de día o de hora a la entidad interesada.

III- La realización de eventos culturales en espacios exteriores puede ir acompañada de la instalación de carpas, escenarios, equipos de música, barracas y otros elementos o dispositivos, en cualquier actividad en general pero en especial en las fiestas patronales y las de barrio, siempre cumpliendo los requisitos técnicos y normativa aplicable.

IV- La solicitud de autorización deberá contener, entre otros:

Datos de la entidad solicitante: nombre y apellidos, NIF, domicilio, teléfono e email.

Datos de la actividad: día, lugar, horario, necesidades (material, toma agua, puntos luz, acompañamiento Policía Local...).

Programa de la actividad

Documentación gráfica y técnica de carpas, escenarios y cualquier otros elementos o dispositivos estructurales.

Seguro de responsabilidad Civil junto a la acreditación del pago de la prima.

V- Las solicitudes se presentarán con al menos un mes de antelación a la fecha en la que se solicite realizar la actividad. En el caso de las fiestas



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

horretarako ezarritako epean aurkeztu beharko dira.

Eskabideak epe laburragoan aurkeztuz gero, ezin izango da ziurtatu izapidetuko direnik, eta epe kontuengatik ezetsi ahal izango dira.

Jardueraren data baino lehen berariaz ebazten ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

VI- Jardueraren baldintza teknikoak

Erabilitako egiturak lotzean, finkatzean eta/edo lurrean ainguratzean, halako moldez egingo da, non haizearen ondorioak saihestuko diren eta estalkiaren olana behar bezala tinkatuko den, euri-urak poltsak sortzea saiheste aldera. Erabat debekatuta dago zoladura zulatzea.

Ezingo dira inola ere udal koadro elektrikoak manipulatu.

Koadro elektrikoak erabiltzeko, giltzak eskatu beharko dira udaleko Kultura departamentuan.

VII- Udaleko teknikariek baldintza tekniko horiek aldatu eta egokitu ahal izango dituzte, une bakoitzean indarrean dagoen legeriaren ildotik edo segurtasuna eta ekitaldia behar bezala egitea bermatuko duten beste premia batzuen ildotik.

Erakunde antolatzaileak bere gain hartzen du ikuskizun edo jarduera hori egitearen ondoriozko erantzukizuna, eta jarduerak kalterik eragiten badu antolatzailearen doloa, zabarkeria edo aurreikuspenik eza dela medio, hura izango da erantzule.

Eremua uneoro kontserbazio egoera onean eta garbi mantenduko da. Horretarako, behar izanez gero, ontziak jarriko dira bilgarriak eta bestelako hondakinak jasotzeko. Behin jarduera bukatuta, erabilitako material guztiak desmuntatu eta kenduko

patronales dichas solicitudes deberán presentarse en el plazo estipulado a tal efecto por el Ayuntamiento de Errenteria.

No se podrá asegurar la tramitación de las solicitudes que se presenten con un plazo inferior, pudiendo ser desestimadas por cuestión de plazo.

En el caso de no resolverse de forma expresa antes de la fecha de la actividad, la solicitud se entenderá desestimada.

VI- Condiciones técnicas de la actividad

El atado, las fijaciones o/y sujeción al suelo de las estructura utilizadas, se realizará de forma que evite el efecto del viento y garantizando el correcto atirantado de la lona de cubrición, evitando bolsas de agua de lluvia, quedando estrictamente prohibido perforar el pavimento.

Los cuadros eléctricos municipales no podrán ser manipulados bajo ningún concepto.

Para la utilización de los cuadros eléctricos se deberán solicitar las llaves en el Departamento de Cultura del Ayuntamiento.

VII- Estas condiciones técnicas podrán ser modificadas y adaptadas por el personal técnico del ayuntamiento a la legislación vigente en cada momento o a otras necesidades que garanticen la seguridad y la correcta realización del evento.

La entidad organizadora asume la responsabilidad derivada de la celebración del espectáculo o actividad, respondiendo de los daños que, como consecuencia del mismo, pudieran producirse por su dolo, negligencia o imprevisión.

Se mantendrá en todo momento el entorno en buen estado de conservación y limpieza. Para ello se colocarán en caso de ser necesario recipientes para la recogida de envoltorios u otros residuos. Una vez finalizada la actividad se procederá al desmontaje y



ERRETERIA UDALA

Kultura / Cultura

dira, eta eremua jarduera egin aurretik zegoen bezala utziko da. Udalak erabakiko du ekitaldi edo instalazio mota bakoitza desmuntatzeko epea.

Erakunde interesduna edo kanpoko espazioetan ekitaldia antolatuko duena ez bada udalerrikoa edo erakunde pribatua bada, kanpo-espazioaren gutxieneko garbiketa bermatuko da eta komunei dagokionez, horiek jartzea gomendatzen du Udalak. Nolanahi ere, egindako jardueraren ondorioz alderdi horretan gabeziak edo kalteak antzemanaz gero, Udalak etorkizuneko ekitaldi edo baimenei begira beharrezkotzat jotzen dituen prebentzio-neurriak ezarri ahal izango ditu, bai eta eragindako kalteak konpontzeko dagozkion exekuzio-aginduak eman ere.

Erakunde antolatzaileak egitekoa den ekitaldiaren berri eman beharko die auzotarrei: zer ekitaldi egingo den, noiz eta non. Informazio hori gutxienez astebete lehenago jakinaraziko da.

Udalak baimena emanda ere, horrek ez du erakunde antolatzailea salbuesten beste agintaritzak edo instantzia batzuetan beste baimen batzuk eskatu beharretik, indarrean dagoen araudiak hala agintzen badu; baimen horiek udalari aurkeztu beharko dizkio.

Udalaren esku uzten da emandako baimena edonoiz errebokatzeko edo ondorioz gabe uzteko ahalmena, baita ekitaldia egin aurretik ere, bat-batean agertutako interes publikoko inguruabarrek hala eskatzen badute; ez dio horrek baimendunari kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango, baina udalak behar bezala arrazoitu beharko du halako inguruabarrak gertatu direla.

VIII- Soinu mailak.

retirada de todos los materiales empleados y a la restitución del entorno a su estado original. Se acordará desde el Ayuntamiento el plazo de desmontaje para cada tipo de evento o instalación.

En el caso de que la entidad interesada u organizadora del evento en espacios exteriores no sea municipal o sea privada, se garantizará la limpieza mínima del espacio exterior y, en lo que respecta a los aseos, el Ayuntamiento recomienda su instalación. En todo caso, si se observaran deficiencias en este aspecto achacables a la actividad realizada, el ayuntamiento podrá ordenar las medidas preventivas de cara a próximos eventos o autorizaciones, u órdenes de ejecución en relación con los desperfectos causados.

La entidad organizadora tendrá la obligación de informar a los vecinos de cuál es el evento que se va a realizar, cuándo y dónde. Esta información se transmitirá al menos con una semana de antelación.

La autorización que en su día se otorgue no exime a la entidad organizadora de solicitar otras autorizaciones o permisos a que la obligue la normativa vigente, respecto a otras autoridades o instancias, las cuales deberán aportarse al Ayuntamiento.

Se reserva en favor del Ayuntamiento la facultad de revocar o dejar sin efecto en cualquier momento la autorización que se otorgue, incluso antes de la celebración del evento, si así lo exigen circunstancias sobrevenidas de interés público, sin dar derecho al autorizado a recibir por ello indemnización ninguna, si bien el Ayuntamiento deberá motivar debidamente la concurrencia de dichas circunstancias.

VIII- Niveles sonoros.



ERRENTERIA UDALA

Kultura / Cultura

Kanpoko espazioetan baimendutako zernahi ekitalditan bozgorailuetatik bi metrora neurtutako maila akustikoak ez dira 80 dB (A) baino handiagoak izango.

IX- Orduategiak

Kanpoko espazioetan egindako jarduera edo ekitaldien ordutegia 1. eranskinean adierazitakoa izango da. Erakunde antolatzailearen ardura izango da, ekitaldia amaitutakoan, musika ekipoak itzaltzea eta han dabilen jendea sakabanatzea.

X. Txosnak

«Txosna»tzat hartzen da jai-esparru edo jai-guneetan kokatzen den aldi baterako eta noizbehinkako instalazio oro, ostalaritza-jarduerekin lotura zuzenik ez duena eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatua dena.

Behin-behineko instalazio horiek herriko jaietan, auzoetako jaietan eta berriazko jarduerak programatzen diren kasuetan soilik baimenduko dira, txosnak jarduera horretarako proposatu den programazioan sartuta badaude, eta betiere jarduera hori onartu behar duen departamentuak egoki irizten badio.

Behin-behineko instalazio edo txosna horiek ere bete beharko dituzte gainerako kanpoko espazioetako ekitaldiek bete beharreko baldintza tekniko berak.

Txosnek berriazko ordutegia izango dute, 1. eranskinean adierazten den bezala.

Bigarrena. - Errekerimendua

Aldizkako ikuskapenak egin ditzaten eskatzea Udaltzaingoari eta udal teknikariei, ebazpen honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Los niveles acústicos máximos medidos a dos metros de los altavoces de cualquier evento autorizado en espacios exteriores, no excederán de los 80 dB(A).

IX- Horarios

El horario de las actividades o eventos en espacios exteriores será el recogido en el anexo 1. Una vez finalizado el evento, la entidad organizadora del mismo tendrán la responsabilidad de apagar los equipos de música y dispersar a la gente que se encuentre en el lugar.

X. Txoznas

Se entiende por “txozna” cualquier instalación temporal sin conexión directa alguna con las actividades de hostelería en ambientes festivos, de carácter ocasional, dentro de recintos o espacios festivos, promovidas por entidades sin ánimo de lucro.

Dichas instalaciones eventuales sólo se autorizarán en las fiestas patronales, en las de barrio y en aquellas casos en que se programen actividades específicas cuando la instalación de txoznas se halle incorporada a la programación que para esta actividad se ha propuesto, siempre que el departamento que debe aprobar la misma lo considere oportuno.

Estas instalaciones eventuales o txoznas estarán sujetas a las mismas condiciones técnicas que el resto de eventos en espacios exteriores.

Las txoznas contarán con un horario específico tal y como se traslada en el anexo 1.

Segundo. - Requerimiento

Requerir a la Policía Local y al personal técnico municipal que procedan a realizar inspecciones periódicas al objeto de realizar un seguimiento de que se cumplen las condiciones establecidas en esta



**ERRETERIA
UDALA**

Kultura / Cultura

resolución.

Hirugarrena.-Ebazpen hau Udaltzaingoari eta Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari jakinaraztea.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a la Policía Local y a la Dirección de Juego y Espectáculos Públicos del Gobierno Vasco.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Zinegotzi delegatua / Concejala delegada

Maite Gartzia Ontiveros



**I. ERANSKINA / ANEXO I
GEHIENEZKO ORDU MUGA / HORARIO MÁXIMO PERMITIDO**

	Ostiralak, larunbatak eta jaiegun bezperak/ Viernes, sábados y vísperas de festivos	Uda (Ostiralak, larunbatak eta jaiegun bezperak ekainaren 1etik irailaren 30era)/ Verano (Viernes, sábados y vísperas de festivos del 1 de junio al 30 de septiembre)	Inauteriak / Carnaval	Sagardo eguna, Apirileko feria / Día de la sidra ,Feria de Abril	San Juan bezpera (lan egun bezpera bada) / Víspera de San Juan (en caso de celebrarse en víspera de día laboral)	Herriko jaiak (gehi aurreko asteburua)/ Fiestas Patronales (+ fin de semana anterior)	ATLANTIKAL DIA (ostiral eta larunbata / viernes y sábado)	Gabonak / Navidad	Auzoetako jaiak / Fiestas de barrio
Kanpoko espazioetako ekitaldiak, irabazi asmorik gabeko eragileen antolatutak / Eventos en espacio exterior organizados por agentes sin ánimo de lucro	02:00	03:00	03:00	03:00	24:00	04:30	03:00	03:00	04:30**
TXOSNAK / TXOZNAS	02:00	03:00	03:00	03:00	24:00	06:00	03:00	03:00	04:30**
Kanpoko espazioetako ekitaldiak, erakunde pribatuek antolatutak / Eventos en espacio exterior organizados por entidades de carácter privado	—	—	—	—	—	04:30*	—	—	04:30**

* Erakunde pribatu bakoitzeko bi ekitaldi baino ez dira baimenduko, eta jai bezperetan beharko dute izan, hau da, uztailaren 21ean, 24an edo 25ean. / Únicamente se autorizarán dos actos por entidad privada que deberán celebrarse las vísperas de fiesta, es decir los días 21 , 24 o 25 de julio.

** Ekitaldiak auzoko jaiak antolatzen dituen elkartearekin adostua beharko du izan, eta jai egitarauan sartu beharko da. Ostiral, larunbat eta jai bezperetan baimenduko dira era horretako ekitaldiak. / El evento tendrá que acordarse con la asociación organizadora de las fiestas de barrio y deberá incluirse en el programa de fiestas. Este tipo de evento se autorizará los viernes, sábados y vísperas de fiesta.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026KPOL0010-DEKRETUA/DECRETO (ERRENTERIAKO UDALA)

Digitalki sinatua:



PO Maite Gartzia

Zinegotzi delegatua

Data: 2026/06/19 14:24:45